

GUREAK Zerbitzuak enpresaren egitekoa da, hain zuzen, bereziki adimen desgaitasuna duten pertsonen behar bezala egokitutako lan aukera egonkorra sortzea eta aukera horiek kudeatzea, Gipuzkoan.

Gure enpresarentzat pertsonak dira lehentasuna, bai eta bezeroak, gure bazkideak, erakundeak, eta, oro har, Gipuzkoako gizartea ere.

Zuzendaritzak Kudeaketa Sistema Integratua garatzeko eta gidatzeko konpromisoa dauka, eta bere helburua izango da, hain justu, gure pertsonen, bezeroen, bazkideen, erakundeen eta gizartearen beraren premiak eta igurikapenak asetzeari, erakundeko langile guztientzat egokia izango den lan giroa sortuz.

GUREAK Zerbitzuak enpresa Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko jarduerari ugaltzeko ahalegina egiten ari da, laneko istripuak eta gaixotasunak izateko arriskua murrizte aldera. Hala, kutsadurari aurrea hartzen dio, ingurumen inpaktuak murrizten ditu, ur eta energia kontsumoak optimizatzen ditu, eta baliabideen zein hondakinen kudeaketa egokia gauzatzen du.

Laneko Segurtasun eta Osasun arriskuen kontrola Kontrol Neurrien Hierarkia baten bidez egiten da: hasi arriskua desagerraraztetik, eta norbera babesteko ekipamenduak ezartzera bitarte.

Konpromisoan oinarritutako sistema bat daukagu, kudeaketa eraginkor, kontrolatu eta seguruan esku hartzen duena, eta genero ikuspegiarekin eta ingurumenari begira errespetuz eta konpromisoz jarduten duena. Gure sistema praktikoa, arina eta etengabeko hobekuntzaren bultzatzaile erreala da, aldi berean.

Aplikagarriak diren eta ontzat hartutako lege baldintzak betetzeko konpromisoa onartu du zuzendaritzak, eta horren arabera, prozesuak garatzeko, barne helburuak finkatzeko eta arriskuak gutxitzen zein aukerei etekina ateratzen lagunduko diguten ekintzak planifikatzeko beharrezkoak diren baliabideak emango ditu.

Erakundeak beharrezkoak diren pertsonak eta baliabideak izango ditu aldoan, GUREAK Zerbitzuak enpresak premisa horiek guztiak bete ditzan. Hala, langile talde osoaren ahalegina eta parte hartzea aitortzen du, eta horretan oinarritzen da.

Donostian, 2018ko maiatzaren 8an



GUREAK Zerbitzuak enpresaren egitekoa da, hain zuzen, desgaitasunak dituzten pertsonen lana bilatzea. Eta lehentasuna izango dute adimen desgaitasuna dutenek.

Gure enpresak lanpostuak eta prozesuak egokitzen ditu, eta behar beste erraztasun ematen ditu.

GUREAK Zerbitzuak enpresarentzat pertsonak dira garrantzitsuena. Eta garrantzitsuak dira, halaber, bezeroak, bazkideak, erakundeak eta gizartea bera.

Gure enpresako zuzendaritzak lanean dihardu, pertsonak, bezeroak, bazkideak eta erakundeak gure egitekoarekin pozik egon daitezten.

Eta laneko giroa zinez garrantzitsua da hori lortzeko.

GUREAK Zerbitzuak enpresak Kalitate, Ingurumen eta Prebentzio Sistemen laguntzarekin jarduten du.

Sistema horiek, hain justu, kudeaketa hobea egiten laguntzen dioten metodoak dira. Gehiago zaindu behar dugu ingurumena, eta laneko istripuei aurrea hartu behar diegu.

Gure enpresak ahalegina egiten du etengabeko hobekuntza izateko.

GUREAK Zerbitzuak enpresako zuzendaritzak inguruan gertatzen ari den guztia aztertu behar izaten du.

Planak egin behar ditu, helburuak finkatu, eta ekin.

Era horretan, arriskuak txikiagoak izango dira. Eta aukerak daudenean ere, etekin handiagoa atera ahal izango diegu.

Gure enpresak beti bete behar du Legea.

GUREAK Zerbitzuak enpresak hau guztia aurrera ateratzeko behar beste baliabide eta pertsona ditu.

Guzti-guztiok parte hartzen dugu. Gure ahaleginak badu aitortpena, eta babesa jasotzen dugu.

Iñigo Apalategi Garikano  
**GUREAK Zerbitzuakeko Zuzendaria**